



Usurbilgo Udala



2014KO URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J. (4. puntutik aurrera)
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.
Ricardo Crespo Rubio J.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Ez da bertaratu: Enara Arbizu Irurtia A.

Arratsaldeko 18:05etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko urriaren 28an, arratsaldeko 18:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2014/06/24KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko ekainaren 24ko ohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Josune Urkolaren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO IRAILAREN 22TIK URRIAREN 17RA (2014/0887 – 2014/0992)

Alkatetzak 2014ko irailaren 22tik urriaren 17ra bitartean (2014/0887-2014/0992) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala



Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- HILERRI ZAHARREAN PANTEOIETARAKO PARTZELEN EMAKIDA ADMINISTRATIBOA ERRESKATATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

2001eko abuztuaren 10ean hilerri zaharraren itxiera erabaki zela eta hilerri zaharreko ehorzketak bertan behera utzi zirela esan du. Garai horretan 81 panteoi zeudela eta hauen zerrenda 30 egunez jendaurrean jarri zela adierazi du, interesdunek beraien eskubideen egiaztatagiriak aurkeztu zituzten.

Bestalde, momentu horretan ere baimen mota ezberdinak zeudela ikusi zen, aurreko urteetan baimen mota ezberdinak eman zirelako. Batzuk panteoiak eraikitze baimenak ziren, beste batzuk “a perpetuidad” deitzen ziren lagapenak, 14 prekarioan emandakoak ziren eta titulurik gabeko okupazioak ere bazeudela aipatu du.

Panteoien inguruan egin zen txosten juridiko batean hiru motatako titulartasunak bereiztu zirela zehaztu du. Batetik, prekarioan emandakoetan, baimenean bertan esaten zela esan du hauek ez zutela inongo eskubiderik izango etorkizunean hilerria beste batengatik aldatzen bazen.

Bigarrenik zeuden panteoiak eraikitze baimenak zituztenak eta kasu hauetan ere ez ziren aintzat hartzen zeren ordenantza arautzailerik ez zegoen bere momentuan.

Azkenik “a perpetuidad” deiturikoak zeuden, eta hauek bai udalak ontzat hartzen zituela eta eskubide batzuk aitortzen zitzaizkiela esan du. Hauen kasuan legea aldatu egin zela aipatu du eta betirako iraupena izan beharrean 99 urterako finkatu zela.

Garai hartako arkitektoak, Luis Renedok, panteoiak kokatzen ziren partzelen kontzesio administratiboaren balorazioa egin zuela adierazi du eta Udalbatza Plenoak 2002an erabaki zuela dio zeintzuk ziren panteoien titulartasuna jabetzan eman daitezkeenak. Erabakia jendaurrean jarri zen eta panteoien titularrak 18 zirela finkatu zen.

Emakida administratibo hau erreskatatzeko jardunbidearen hasiera jakinarazi zela, indemnazio batzuk proposatu zirela eta ondoren alegazio batzuk aurkeztu zirela adierazi du. 11 alegazio aurkeztu zirela esan du eta gehienak indemnazioaren balorazioaren ingurukoak zirela zehaztu du.

Alegazio batean titulartasuna frogatu ahal izan zela esan du eta 18tik 19ra pasatu zela titularrak zirenak.

Hau guztia horrela, 2004an Luis Renedori beste txosten bat egiteko eskatu zitzaiola esan du balorazioak berrikusi zitzaizkan.

Gerora udaletxean ez zela pauso gehiagorik eman jakinarazi du.



Usurbilgo Udala



Hamar urte pasa direla eta tarte honetan interesdunek balorazioari egindako alegazioei buruz galderak egin dituztela eta orduan eskatzen zutena berriz eskatzen jarraitu dutela esan du.

Orain, 19 jabeekin hitz egin dela dio eta akordio batetara iritsi direla. Proposatu zaiena dela dio Renedok egindako balorazio horren baitan beste faktore batzuk kontutan hartuta, beste sailkapen bat egitea.

Hori horrela, akordiora eramaten dutena da hilerri zaharreko 4 metro arteko azalerako panteoien ordez hilerri berrian 2 apal ematea, zaharreko 7 metro arteko azalerako panteoien ordez berrian 3 apal ematea eta zaharreko 7 metroko azalera gainditzen duten panteoien ordez berrian 4 apal ematea, eta kasu guztietan emakidaren epea 50 urtekoa izatea.

Proporziozko indemnizazio bat planteatzen dela esan du eta horrela jasoko dela jabe bakoitzarekin sinatuko den hitzarmenean.

Proposamen hau bere garaian Renedok egin zuen balorazioarekin konparatuz gero, garai hartan indemnizazio moduan udalak 1.829 euro ordaindu behar zituen eta 27 apal ematen ziren kontzesioan. Orain Udalak egiten duen proposamen honetan Udalak ez du dirurik jartzen, kontzesioa hemendik aurrera 50 urtetarako izango da guztientzat eta 47 apal ematen dira kontzesioan.

Egindako planteamendua ia gehiengoak onartzen duela esan du, biren kasua guztiz ziurtatu gabe dagoela erantsi du, familiarteko arazoak dituztelako. Hemendik aurrera dagozkien dokumentuak aurkeztu beharko dituztela esan du.

Bestalde, zerbitzu burua den aparejadoreak dagokion txostena egin duela esan du, esanez ze okupazio maila dagoen edo ze aurreikuspen dagoen eta erabat ondo datorrela.

Beraz, erabaki honetan duela 10 urte alegazioa tartekatu zutenei erantzuna orain emango zaiela eta emakidak erreskatatzen direla esan du.

Batzarkideek, Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zkia:HZ.06/2014-0139

Aurrekariak

Usurbilgo Hilerri zaharra ehorzketak egiteko lekurik gabe geratzen ari zela eta soluzioak bilatzea ezinbestekoa zela ikusi zuen Udalak 1.996. urtean .



Usurbilgo Udala



Bestalde, 1990ko irailaren 18an Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak onartutako Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan, Hilerri Ekipamendurako Sistema Orokorra honela antolatzen da:

.Kaxkoan kokaturiko hilerri zaharrari sakratasuna kendu egingo zaio eta Gune Libreko Sistema Orokorra bihurtuko da, eta Hilerri berria,(SGECM-2), Arratzain bideko bizkar batean kokatuko da eta 21.300 m²-ko azalera izango du.

Ordurako ikusita zegoen hilerri zaharraren egoera gero eta larriagoa zela, ehorzketa berriak egiteko lekua ere gero eta txikiagoa baizen. Hala ere. bertan handitze obrak planteatzea ezinezkoa zen, kasko erdian kokaturik zegoelako eta AASSetan bere lekuan parke edo gune librekoa antolaturik zegoelako (SGEL-5). Nitxo berriak ere betetzen ari ziren eta derrigorrez behin betiko soluzioak bilatzen hasi beharra zegoen. Soluzio horiek aipatu Arau Subsidiarioetan jasota zeuden, hau da, Arratzain bidearen ertzean, SGEM-2an hilerri berria aurreikusita zegoen.

Beraz, SGECM-2an, Arratzain bideko bizkar batean hilerri berria eraiki ahal izateko jardunbideari ekitea ebatzi zuen Alkatetzak 2001eko abuztuaren 10ean.

Hilerri berria irekitzeko tramiteak burutu ostean eta ehorzketak bertan egitea erabaki ondoren, hilerri zaharraren itxiera erabaki zen, horrela, Usurbilgo Udaleko Udalbatza Plenoak 2001eko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako erabakiak hartu zituen:

LEHENDABIZI: Hilerri zaharrean ehorzketak bertan behera uztea.

BIGARREN: Udal hilerriak ixteari buruz, Osasun eta Hileta Zaintzaren Araudiko 58.eta 59.ataletan xedatutakoaren arabera, erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari jakinaraztea.

Hilerri zaharra ixteko arrazoiak justifikaturik geratu ziren espedientean: Osasun arazoak, ehorzketa berriak egiteko lekurik ez izatea, hilobi publikoen kopurua agortuta egotea, hiriaren erdian kokapen desegokia, hilerri berria funtzionamenduan jartzea e.a.

Beraz, momentu horretan ehorzketa guztiak hilerri berrian egiten hasi ziren, hilerri zaharrean ehorzketa guztiak etenda geratu zirelarik.

Eraikuntza aldetik hilerri berria prestatu ostean, zati bat pribatizatzea erabaki zen eta horrela, Udalbatza Plenoak, 2000ko irailaren 26an, Udal Hilerri berriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Araudia BEHIN BETIKOZ onartzea erabaki zuen.

Arautegi honek artikuluko ezberdinetan 4 aldaketa jasan zituen eta 7 fase edo lotetan, hilerri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko lege, ekonomi eta administrazioko baldintza orriak onartu ostean 6 hilobiko 18 panteoi pribatizatu dira orain arte.

Hilerri zaharrera itzuliaz, eremu honetan 81 panteoi zeuden, eta berau erabat ixteak, berarekin zeraman, baita ere, batetik prekaristen eskubideak bukatutzat



Usurbilgo Udala



ematea, eta beste aldetik, orduan indarrean zeuden emakida administratiboak iraungitzat ematea.

Udal Espedientean aurkitzen ziren datuen arabera, panteoi zerrenda egin eta jende aurrean jarri zen 30 eguneko epean, interesdun guztiek beren eskubideen egiaztagiria aurkez zituzten.

Tramite hori audientzia eta jendaurreko agerpen izapideari ekiteko egin zen, hilerri zaharra ixte aurreko informazioa jaso nahian.

Informazio espedientea erakusketa publikoan egon ostean zerrenda berri bat egin zen, prekario eskubideak dituztenak eta emakida administratiboaren titularrak direnak ondo zehaztuz eta alegazioen arabera jakinarazpenak nori bidali aldamenean aipatuz.

Azkenik, Usurbilgo Hilerri Zaharrean kokaturiko panteoien egoerari buruzko txostena egin zuen Udal Idazkariak, bertan, Udal hilerrien izaera juridiko eta Udalaren eskuduntzak eta panteoien titularren eskubideei buruzko azterketa jaso zuen, ondorioak proposatuz. Txostenak, literalki honela dio:

"1.- Udal hilerrien izaera juridikoa eta Udalaren eskuduntzak.-"

Toki-jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 25.2.j) atalak hilerri eta hileta-zerbitzuak eskaintzeko udalen eskuduntza finkatzen du. Aipaturiko legearen 26.atalak udal guztiek derrigorrez zerbitzu hau eman behar dutela xedatzen du.

Bestaldetik, "Policía Sanitaria Mortuoria" delakoa arautzen duen 20ko 2263/74ko Erregelamenduko 47. atalak, honela dio: "Cada Municipio habrá de tener un cementerio, por lo menos, de características adecuadas a su densidad de población..." . Erregelamendu honen 60.b) eta c) atalek honela diote: "En los cementerios municipales corresponden a los Ayuntamientos los derechos y deberes siguientes:.....b) La distribución y concesión de parcelas y sepulturas. c) La percepción de derechos y tasas que procedan por la ocupación de terrenos

Beraz, aipaturiko legeria kontutan harturik, Usurbilgo Udalerrian kokatzen diren hilerri publikoen gaineko eskuduntza herri honetako udalari dagokio.

Hilerrien izaera juridikoa aztertzekeo garaian, indarrean dagoen Toki-entitateetako Ondasunen Erregelamenduko (ekainaren 13ko 1372/86 Dekretuak onaturikoa) 4. atalak zerbitzu publikoei atxekituriko ondasunen kontzeptua zehazten du, Toki- Entitateen helburu publikoen gauzatzearekin lotura dutenak direla xedatuz. Atal honetan beste ondasunen artean, hilerriak aipatzen dira.

Erregelamendu horren 5. atalak honela dio: "Los bienes comunales y demás bienes de dominio público son inalienables, inembargables e imprescriptibles, y no están sujetos a tributo alguno".

Hilerrien jabego publikoko izaera honek ondorio garrantzitsuak dakartzki, hauen artean ondoan azpimarratzen direnak:

- *Hilerri eta beraien elementuak ezin dira besterenganatu edota bahitu.*
- *Hilerrien elementuetako jabego pribatua ezin da preskripzioz eskuratu.*



Usurbilgo Udala



Hala ere, hilerri dagokienez, Udalak ez dira eskumena duten Administrazio bakarra, ikusiko dugunaren arabera.

2.- Usurbilgo hilerri zaharraren itxiera.-

Usurbilgo Udaleko Udalbatza Plenoak, 2001eko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

"LEHENDABIZI: Hilerri zaharrea ehorzketak bertan behera uztea.

BIGARREN: Udal hilerriak itxeari buruz, Osasun eta Hileta Zaintzaren Araudiko 58. eta 59. atalean xedatutakoaren arabera, erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari jakinaraztea."

Hilerri zaharrea ehorzketak etetzeko arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren:

1. Hilerrian zeuden hilobi publikoen kopurua agortuta egotea
2. Hilerri berriaren funtzionamendua hastea
3. Hilerri zaharraren kokapen desegokia, herri-gunean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bere adostasuna adierazi du hartutako erabakiekin, eta momentu honetan ehorzketa guztiak etenda daude hilerri zaharrean.

Aipatu den Erregelamenduko 59. atalean xedatutakoaren arabera, hilerri zaharrean dauden gorpuzkinen lekualdaketa gauzatzeko 10 urteko epea errespetatu behar da. Lekualdaketa egin aurretik, erabaki hau erakusketa publikoan egongo da 3 hilabeteko epean, dagozkion jakinerazpenak eginez eta iragarkiak argitaratuz (G.A.O.-n eta egunkarietan).

3.- Hilerri zaharreko panteoien titularren eskubideei buruzko azterketa

Usurbilgo hilerri zaharrean dauden panteoien egoera aztertzeke garaian, bi ekimen jarri dira martxan:

- a) egungo hilobi-eskubideen egoera ezagutzeko aurreko informazio-espeditente bat izapidetu da, Gobernu Batzordeak 2001eko maiatzaren 29an hartutako ebazpenetan oinarriturik. Espeditente hau hogeitamar eguneko epean egon behar zuen erakusketa publikoan, interesatuek bere eskubideen egiaztagiriak aurkeztu ahal izateko.
- b) Udaletxeko artxiboan ikerketa bat burutu da, honako helburuekin:
 - a. Udal hilerriaren funtzionamendua arautzen zuen araudirik ba ote zegoen jakitea.
 - b. Hilerri zaharrean hilobiak eraikitzeagatik indarrean zeuden zergen erregimen juridikoa ezagutzea
 - c. Hilerri zaharreko hilobien titularren eskubideen izaera juridikoa ezagutzea

Informazio-espeditenteari dagokionez, interesatuen agerraldiak jaso dira eta hilobi-panteoien zerrenda egin da. (...)

Udalaren artxiboan egin den azterketa amaitu ondoren, honako emaitza hauek jaso dira:

4. Hilerri zaharraren funtzionamendu eta eskubideen iraganeko ordenantza arautzaileari dagokionez, ez da inolako informaziorik aurkitu. Beraz, momentu bakoitzean indarrean egon den legeri orokorra kontutan hartu behar da.



Usurbilgo Udala



5. Hilobiak eraikitzeagatik zergen erregimenari dagokionez, aurreneko ordenantza arautzailea 1.946koa da. Orokorrean, honako datu hauek aurkitu dira:
- f. 1.946ko Ordenantza Fiskalak: "Tasa por concesión de parcelas para la construcción de sepulturas en el cementerio municipal" delakoa arautzen du.
 - g. 1.955eko Ordenantza Fiskalak: Zergaren kontzeptua berdina da.
 - h. 1.962ko Arautegi Fiskaletan honako kontzeptu hauek agertzen dira: "Tasa por concesión de terrenos en los cementerios municipales", eta "licencias a perpetuidad para sepulturas".
 - i. 1.965ean "Tasas por concesiones para sepulturas en el cementerio municipal" zerga-mota mantentzen da, baina "a perpetuidad" delako adierazpena desagertzen da. Tasaren xedeari dagokionez, honako hau adierazten da: "Objeto de la imposición: La concesión de parcelas para la construcción de sepulturas en el cementerio municipal".
 - j. Ondoren, ez da aurkitu beste Arautegi fiskalik, 1.980ko hamarkada arte.
11. Hilobien titularren eskubideei dagokienez, Udal artxiboetan eta interesatuek ekarritako dokumentuetan honako baimen-motak aurkitu dira:
- l. Panteoiak eraikitze baimenak:
 - xiii. 26 Domingo Astiasaran Zatarain J., 1.949
 - xiv. 73 Serapio Aizpurua Aldalur J., 1.980
 - xv. 1 Jose Machain Alzaga J., 1.947
 - xvi. 64 Eustaquio Pagola Camino, 1.980
 - xvii. 72 Elena Zaldua Zaldua, 1.981
 - xviii. z/g Maria del Carmen Arrieta Urbieta, 1.981
 - xix. z/g Martin Larrañaga Bajineta, 1.983
 - t. "A perpetuidad" deituriko lagapena:
 - xxi. 61 Josefa Aizpurua Irazu A., 1.961
 - xxii. 78 Julian Urkiola Urroz J., 1.960, 1.964
 - xxiii. 10 Jose Korta Etxeberri, 1.950
 - xxiv. 52 Lázaro Maíz Illaramendi, 1.960
 - xxv. 51 Ignacio Olazabal, 1.960
 - xxvi. 55 Félix Olasagasti Mujika, 1.960
 - xxvii. 56 Jose Juan Olasagasti Camino, 1.960
 - xxviii. 57 Josefa Peñagarikano Izeta, 1.960
 - xxix. 54 Manuel Etxabeguran
 - xxx. 53 Raimundo Illaramendi Camino
 - xxxi. 47 Jose Maria Torregarai Furundarena, 1.960
 - xxxii. 58 Juan Manuel Aizpuru Arana, 1.960
 - xxxiii. 59 Blas Amas Goñi, 1.961
 - xxxiv. 60 Juan Zubitur Salsamendi, 1.961
 - xxxv. 62 Antonio Urdangarin "Itzao", 1.961
 - xxxvi. 63 Manuel Urruzmendi Ostolaza, 1.962
 - xxxvii. 65 Francisca Jauregi Arana, 1.964
 - xxxviii. 11 Marcelino Iturralde Sorrondegi, Amancia Agirrezabal Agirresarobe ondoren
 - xxxix.
 - nn. Prekarioan emandako baimenak:
 - xli. 68 Felipe Arratibel Imaz, 1.972
 - xlii. 66 Jose Gisasola Lazkano eta Toribio Gisasola Lazkano ("cesión temporal"), 1.964



Usurbilgo Udala



- xlili. 67 Jose Ramon Aizpurua Iribar, 1.965
- xliv. 69 Jose Aizpurua Alkorta, 1.973
- xlv. 70 Felix Lertxundi Odriozola, 1.973
- xlvi. 71 Dolores Aramburu Igarzabal, 1.974
- xlvii. 49 Ignacio Gorriti Camino, 1.975
- xlviii. 48 Jose Miguel Zulaika Aizpurua, 1.975
- xliv. z/g Maria Carmen Santonja Esquivias, 1.975
 - I. 50 Jose Maria Gaztelumendi Garro, 1.976
 - li. 77 Consuelo Izquierdo Izquierdo, 1.976
 - lii. 76 Isidra Telleria Sodupe, 1.977
 - liii. 75 Jose Sansiñena Altuna, 1.977
 - liv. 74 Antonio Aizpurua Cestona, 1.979

ccc. Titulurik gabeko okupazioak:

- lvi. 42 Vidaor-Lizaso
- lvii. 3 Esteban Iribar

Beraz, ikerturiko datuen arabera, hilerri zaharreko panteoien gainean hiru motatako titulartasunak bereiztu behar dira:

- *Prekarioz emandako baimenak: kasu honetan, emandako baimen guztietan honako hau adierazten zuen Udalak: "Se hace constar que el concesionario no podrá alegar derecho alguno sobre la parcela de que se trata si, en el futuro, el citado cementerio fuese desprovisto de su carácter por la habilitación de otro nuevo". Hilobien gaineko inolako titulartasunik egiaztatu ez dutenek egoera berdinean egongo lirateke.*
- *Panteoia eraikitze baimenak. Kasu honetan ezingo genuke ondorioztatu mugagabeko emakida administratiboaren aurrean aurkitzen garenik, Udalak ez bait zuen inolako oinarririk (Ordenantza Arautzaila) horrelako erabaki bat hartzeko. Bestaldetik, inongo kasutan ez da aipatzen emandako baimenaren iraupena, eta are gutxiago, baimenaren izaera emakida administratiboaren kontzeptuan*
- *"A perpetuidad" deituriko lagapenak. Kasu honetan emakida administratiboaren aurrean gaude, Idazkari honen ustez. Hala ere, eskubide hauen izaera juridikoa eta ezaugarri nagusiak aztertu behar dira.*

Lan honen aurreko atalean aipatu denaren arabera, herri-jabegoko ondasunen titulartasuna ezin da pribatiboki besterenganatu edota preskripzioz lortu. Bestaldetik, "Policia Sanitaria Mortuoria" delakoa arautzen duen uztailaren 20ko 2263/74ko Erregelamenduko 60. atalak Udalen ahalmena onartzen du, lursail eta hilobiak banatu eta emakidan esleitzeko, baina ez saltzeko.

Zer gertatzen da, orduan, aipaturiko Erregelamendua sortu baino lehenago "betirako" esleitu diren hilobiekin? 1.955eko maiatzaren 27ko Udal Ondasunen Erregelamenduko 4.1 atalak hilerri eta hilobien herri-jabegoko izaera xedatu zuen. Araudi honen aurretik ez zegoen inolako definiziorik ondasun horien izaera juridikoari buruzkoa, hilerri guztiak eliza katolikoaren eskuetan bait zeuden (nahiz eta 1.931ko errepublikako konstituzioak udalen eskuduntza onartuz) Egoera hauen aurrean, Epaimahai Gorenak honako erizpide hauek azaldu ditu behin eta berriro:

- 58. 1.997ko ekainaren 6ko epaia: *La adquisición válida a perpetuidad....Sin embargo ello no significa que exista propiamente hablando una propiedad privada del enterramiento, al ser ésta incompatible con el carácter de dominio público del cementerio municipal....Así la adquisición del nicho a perpetuidad que*



Usurbilgo Udala



implica ser titular de una concesión administrativa no supone que el enterramiento pueda utilizarse para fines distintos del primitivamente otorgado, es decir, la sepultura de la persona cuyos restos ocuparon inicialmente el nicho en cuestión. Por el contrario, puede válidamente el ente municipal establecer unas limitaciones consistentes en la prohibición de enterramientos posteriores, a más del ejercicio de otras facultades que derivan de la titularidad del dominio público.... En cuanto al carácter perpetuo de la concesión....por más que para las adquisiciones de derechos anteriores a la normativa vigente no se puedan aplicar los plazos y límites temporales que imponga la legislación actual, ello no implica que la adquisición a perpetuidad suponga una vigencia indefinida durante cientos de años. Por el contrario, ha de entenderse que existe el límite máximo temporal de 99 años, transcurrido el cual tendría lugar la prescripción inmemorial, lo cual no es admisible tratándose de bienes de dominio público. Entiende la Sala, por tanto, que la vigencia de las concesiones a perpetuidad, como lo es aquella sobre la que se discute, encuentra el límite temporal antes indicado, transcurrido el cual ha de entenderse recuperada la libre disposición del enterramiento por las autoridades municipales

59. 1.998ko abenduaren 14ko epaia: la adquisición a perpetuidad no supone una vigencia indefinida durante cientos de años, pues ha de entenderse que existe el límite máximo temporal de noventa y nueve años, transcurrido el cual tendría lugar la prescripción inmemorial, lo cual no es admisible tratándose de bienes de dominio público. La vigencia de las concesiones a perpetuidad tiene, pues, el límite antes indicado, transcurrido el cual ha de entenderse recuperada la libre disposición del enterramiento por las Autoridades Municipales

Beraz, hilerri zaharreko panteoien betiko emakiden titularrak herri-ondasunak erabiltzeko eskubide baten titularrak bezala kontsideratu behar dira, eskubide honen gehieneko iraupena 99 urtekoa delarik.

Hilerri zaharreko lurperaketak bertan behera uzteak indemnitzatzeko eskubideak sortuko litzieke titular hauei? Idazkari honen ustez, soilik honako baldintza hauek ematen badira:

60. "betirako" emakida administratiboaren titularra izatea, ez prekariozko lagapena, obren baimena, edo bestelako titulu juridikoaren jabe izatea
61. emakida administratiboa indarrean egotea, zera, 99 urte ez izatea
62. emakida administratiboaren titularra (edo haren oinordekoa) izatea, eta hori egiaztatzea

Oinarri juridikoari dagokionez, Toki-Ondasunen Erregelamenduko 80. 10gn. atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udalak emakida hauek indargabetu edo erreskatatzeko ahalmena du, interes publikoko arrazoiak direla medio.

Indemnizazioa baloratzeko, eskubide bakoitzaren indarraldiaren hasiera-data kontutan hartu beharko litzateke, kasuz-kasu, eskubide bakoitzaren aintzintasuna zehaztuz. Era honetan, emakidaren gehieneko epetik (99 urtetik) eskubide bakoitzaren iraupen-urteak kendu beharko lirateke, emakidaren gehieneko epea betetzeko zenbat urte falta diren kasu bakoitzean zehatuz. Indemnizazioa proportzio-eran kalkulatu da.

(...)"



Usurbilgo Udala



Izapidetutako espedientea jendaurrean egon zen bitartean aurkeztu ziren alegazioak eta informazioa jaso, eta azterketa baten ondorioz panteoien interesatuen zerrendak osatu ziren.

Bestalde, panteoiak kokatzen ziren partzelen kontzesio administratiboaren balorazioa egin zuen Luis Renedo Arkitektoak.

Hori guztia ikusirik, Udal Idazkariak egindako txostenean proposaturiko ondorioak eta Zerbitzu Batzordeko irizpidea kontuan harturik, Udalbatza Plenoak 2002ko uztailaren 26an honako hau erabaki zuen:

LEHENA: Hilerri zaharrean lurperaketak bertan behera uzteko erabakia jakinaraztea izapidetu den espediente informatzailean agertzen diren interesatu guztiei, diktameneko eranskinean zerrendaturik agertzen ziren guztiei, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratzea da, erabaki hau errekurritzeko dauden baliabideak azalduz.

BIGARRENA: Ondoren aipatzen diren hilerri zaharreko panteoien titularrei beren eskubideen amaiera jakinaraztea, ezagunak ez badira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eskubideen amaiera, erabaki hau errekurritzeko dauden baliabideak azalduz:

Titularra

6	LIZASO-ARSUAGA
7	IGNACIA IZAGIRRE IRIBAR
8	ALTUNA
9	ALTUNA
2	GOENAGA
3	IRIBAR
4	ARRUTI URRUZMENDI

5	PAGOLA
12	URDANPILLETA-GORROTXATEGI
13	MAIZ
14	Ez ezaguna
15	Ez ezaguna
16	YEREGI-LARRECHAU
17	MENDIZABAL
18	ARSUAGA
19	AIZPURUA
20	IRIGOIEN
21	GALARDI
22	SALSAMENDI ARRUTI

23	URRETA
24	ZUBIMENDI
27	LEGARRA
28	AÑORGA FAMILIA
29	MUGIKA
30	IRAZU -ERREKONDO
31	IRAZU



Usurbilgo Udala



32	ARRILLAGA
33-36	CLERIGOS
37	CALPARSORO
38	
39	
40	AÑORGA
41	ARCE-OLANO

HIRUGARRENA: Elena Zaldua Zalduek egindako alegazioa EZ ONARTZEA, Udal idazkariak egindako txostenean oinarrituz.

LAUGARRENA: Ondoan aipatzen diren hilerri zaharreko panteoien titularrei beren emakida administratiboa erreskatatzeko jardunbidearen hasiera jakinaraztea Udaleko zerbitzu teknikoek proposatu duten indemnitzazioaren arabera, Diktamen honen azalpenean adierazitakoa, hilabeteko epea emanaz dagozkien alegazioak aurkezteko.

Titularra

61	JOSEFA AIZPURUA IRAZU
78	JULIAN URKIOLA URROZ
10	JOSE KORTA ETXEBERRIA
52	LAZARO MAIZ ILLARRAMENDI
51	IGNACIO OLAZABAL
55	FELIX OLASAGASTI MUGIKA
56	JOSE JUAN OLASAGASTI KAMINO
57	JOSEFA PEÑAGARIKANO IZETA
54	MANUEL ETXABEGUREN ZUBELDIA

53	RAIMUNDO ILLARRAMENDI KAMINO
47	JOSE M ^a TORREGARAI FURUNDARENA
58	JUAN MANUEL AIZPURUA ARANA
59	BLAS AMAS GOÑI
60	JUAN ZUBITUR SALSAMENDI
62	ANTONIO URDANGARIN "ITZAO"

63	MANUEL URRUZMENDI OSTOLAZA
65	FRANCISCA JAUREGI ARANA
11	MARCELINO ITURRALDE SORRONDEGI

Halaber, ez ezagunak egiten ziren honako hauek: 14. eta 15. panteoia, 17. panteoia (Mendizabal bezala agertzen dena), 18. panteoia (Arsuaga bezala agertzen dena), 29. panteoia (Mugika bezala agertzen dena), 37. panteoia (Calparsoro bezala agertzen dena), 38. panteoia (ez ezaguna), 39. panteoia (ez ezaguna) 45. panteoia (Moratoras de Rocamora, M^a Jesus bezala agertzen dena) eta 46. panteoia (Olano Yeregi bezala agertzen dena). Hauei ere hilerri zaharreko panteoien eskubideen amaiera jakinarazi zitzaizen, eta beraz, ez ezagunak ziren panteoien titularrei edo beren ordezkoei hamar laneguneko epea eman zitzaizen, Usurbilgo Udaletxeko Hirigintza eta Obretako Bulegoetara azaldu (Joxemartin Sagardiaren plazan) eta jakinarazpena jasotzeko. Iragarria dagokion aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasi zen kontatzen epea. Bulego egunak eta orduak: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13,30ra.



Usurbilgo Udala



Denbora hori pasa eta artean titularra edo haren ordezkoa ez bazen azaltzen, espedientean ez agertuak bezala kontsideratu ziren (legeak dakartzan ondorio guztietarako).

Alegazioak

1.- Aurreko puntuetan jasotakoari buruzko iragarkia, titular eta ordezkarien zerrenda osoarekin 2002ko azaroaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (218 zenbakia) argitaratzen da, interesdunek argitalpenaren biharamunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.

Ez ezagun horiek espedientean agertzekotan, baita ere 30 laneguneko epea zuten erreklamazioak aurkezteko.

2.-Idazkariak espedienterako ziurtatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean egon zen bitartean 11 alegazio aurkeztu ziren.

1.-Alegazioa: Emakidak denak. Indemnizazioaren balorazioaren ingurukoa

- *Juan Jose Iceta Peñagaricano, M^o Antonia Iceta Peñagaricano, Elena Martiartu Aranguena, viuda de Dn Luis M^a Iceta Peñagaricano en representación propia y como mandataria de sus hijos, herederos de Dña Josefa Peñagaricano, titular del panteón nº 57*

- *Dña Fernanda Lizaso Agirre, Dn Juan Manuel Etxabe Lizaso y Doña Begoña Etxabe Lizaso, herederos de Dn Manuel Echaveguren, titular del panteón nº 54.*

- *Dña Benita Etxeberria Etxaniz, viuda de Jose M^a Korta Otegi, en representación propia y de los herederos de Jose Korta titular del panteón nº 10.*

- *Dña Rosario Amas Ugalde en representación propia y de los herederos de Dn Juan Zubitur Salsamendi, titular del panteón nº 60.*

- *Dn Eusebio Ikutza Aizpurua y Maria Unanue Roteta, herederos de Dña Francisca Jáuregi Arana, titular del panteón nº 65*

2. Alegazioa: 12. panteoia printzipioz ez emakida baina froga aurkeztu zuenean onartu zitzaion. Beste alderdi batzuk ez dagozkio espediente honi.

-*Urdanpilleta Gorrotxategi Sendiak aurkeztua*

3. Alegazioa: 3. panteoia. Ez da emakida bezala agertzen eta ez du kontrakorik frogatu - *Maria Lurdes Aizpurua Aierdik aurkeztua*

4. Alegazioa: 41. panteoia. Ez da emakida bezala agertzen eta ez du kontrakorik frogatu.

- *Jose Antonio Artze Agirrek aurkeztua*



Usurbilgo Udala



5. Alegazioa. 16. panteoia. Ez da emakida. Titularra beste pertsona bat dela dio.

- Javier Yeregui Aramendiaa

6. Alegazioa: 23. panteoia. Ez da emakida. Oinordekotza frogatu dute. Beste alderdi batzuk ez dagozkie espediente honi.

- Maria Aranzazu, Miguel, Carmen eta Rosario Urreta Zulaicak aurkeztua (M. Urreta Echevesteren seme-alabek)

7. Alegazioa: 1. panteoia. Ez da emakida. Beste senitarteko bati dagokiola dio.

- Jose Matxain Alzagak aurkeztua

8. Alegazioa: 62. Panteoia. Emakida da. Indemnizazioaren balorazioaren ingurukoa

- Antonio Urdangarin Olidenek aurkeztua

9. Alegazioa: 53. panteoia. Emakida da. Indemnizazioaren balorazioaren ingurukoa

- Dolores Zubeldia Iribarek aurkeztua

10. Alegazioa: 44. panteoia. Ez da emakida. Helbidea gehitu du.

- Isabel Gordoak aurkeztua

11. Alegazioa: 11.panteoia. Emakida da. Indemnizazioaren balorazioaren ingurukoa

- Martin Iturralde Sorrondegi

Hamaika alegazio horietatik 1.2. 8. 9. eta 11. alegazioak ezik, gainontzekoak titulartasunari buruzkoak ziren eta horietako batzuk administrazio emakida bezala onartuak izatea eskatuz. Azken horien artean soilik Urdanpilleta-Gorrotxategi sendiak aurkeztutako alegazioa (2. alegazioa) onartu zen emakidaren titulartasuna egiaztatu zutelako. Gainontzekoek ez zuten emakida frogarik aurkeztu.

Bestetik, egindako balorazio ekonomikoaren alegazioei (1, 8, 9 eta 11. zenbakiak, guztiak emakidak) erantzun ahal izateko hilerri zaharreko emakidak ikusi eta onartuta dauden eskubideak hilerri berrian alderatuz baliokideak aztertzea eta txosten bat egitea eskatu zitzaion Luis Renedo Arkitektoari. Izan ere aurreko txostenean baliokideak ez zituen jaso eta balorazioak pezetetan egin zituen.

Luis Renedok hilerri zaharreko emakidak erreskatatzeko helburuarekin indemnizazioak baloratzeko honako datuak hartu zituen kontutan 2004ko Apirilaren 5ean egindako txostenean: eskubide bakoitzaren indarraldiaren hasiera-data, emakidaren gehieneko epetik (99 urtetik) eskubide bakoitzaren iraupen urteak kendu eta emakidaren gehieneko epea betetzeko zenbat urte falta diren kasu bakoitzean zehaztuz; panteoi bakoitzaren azalera ere kontutan hartu zituen eta baliokideak atera zituen hilerri berriko azalera kontutan hartuz. Indemnizazioak proportzio eran kalkulatu zituen honako taulan jasotakoaren arabera. (Ikus L.Renedoren taula).



Usurbilgo Udala



2014 urteko proposamena

Alegazioak 2002. urtekoak dira eta Luis Renedoren azken txostena 2004. urtekoa da, eta kontutan hartu behar da hainbat urte pasa direla kalkulu horiek egin zirenetik. Alde batetik emakidaren gehieneko epea betetzeko falta diren urteak gutxiago dira oraindik baina nitxoen prezioak nabarmen igo dira.

Beraz, 10 urte iragan dira, interesdunek balorazioei egindako alegazioetan eskatzen zutena erreklamatzan jarraitu dute, azken balorazioarekin ere desadostasuna agertuz.

Horregatik gaia atera eta aztertzea erabaki du Alkateak. Gaia aztertzerakoan kontutan eduki du alegatzaileek diotena eta orduz geroztik 10 urte pasa direla jadanik; hau da, 10 urteko parentesi horretan interesdunek ezin izan dutela emakida berriaren onurarik disfrutatu.

Alegatzaileek diotenez Udalak ez dio erantzun egokia eman erreposizioaren baloreari. Hauen ustez, balore hori hilerrri zaharretik berrira traslado gastuak sartuz, emakida berdineko gaur eguneko tasak kontutan hartuz eta orain daukatenen ordaina emanaz (*hilerrri zaharreko panteoi gehienak 6 apalekoak dira*) atera behar da.

Hau guztia kontutan hartuz, Alkateak eskubideak aitortuta dituzten 19 emakidunei eskaintza berria egitea proposatu du. Renedo arkitektoak 2004an egindako azterketan oinarrituta eta panteoien azaleraren arabera sailekapea eginez, 2014ko proposamen honetan era honetara ordezkatzeko litzateke emakida:

- Hilerrri zaharreko 4 metro arteko azalerako panteoien ordezkari, hilerrri berriak 2 apal ematea.
- Hilerrri zaharreko 7 metro arteko azalerako panteoien ordezkari, hilerrri berriak 3 apal ematea.
- Hilerrri zaharreko 7 metroko azalera gainditzen dutenen panteoien ordezkari, 4 apal ematea.
- Kasu guztietan, emakidaren epea denentzat 50 urterako izango da.

Garbi utzi nahi da, hau ez dela izango zuzeneko esleipena, panteoi zaharreko emakidak erreskatatzeko eskubideak zituztenei proportziorako indemnitazioa baizik, eta horrela jaso nahi da bakoitzarekin sinatu nahi den hitzarmenean.

Renedo arkitektoak egindako balorazioaren arabera Udalak 1.829,75 euro ordaindu behar zituen eta 27 apal eman kontzesioan bakoitzari geratzen zitzaizkion urteetarako.

Orain, Alkateak egiten duen proposamen berriarekin Udalak ez du dirurik jartzen, kontzesioa 50 urterako izango da eta guztira 47 apal emango dira kontzesioan.

Horrela 2014. urtean zehar, eskubideak frogatuta dituzten guztiekin banan bana bildu da Alkatea bere proposamena azaltzeko eta gehiengo zabalak proposamenarekin ados dira.



Usurbilgo Udala



Guztira 47 nitxo edo apal sartuko lirateke (8 panteoi) emakida berri honetan. Udalak 50 urterako emakida egingo luke hilerri zaharreko panteoiak erreskatatzeko eta dirurik ez luke emango. Apal hauek Sahatsa kaleko bi aldeetako panteoietan kokatuko lirateke eta zozketa egin ondoren banatuko lirateke.

Edozein kasutan, emakida berria egin ahal izateko, Udalak eskatzen dituen dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte interesdunek:

- Betirako emakida administratiboaren titularra izatea edo haren oinordekoa izatea, eta hori egiaztatzea. *Titularrak onuraduna berriaz izendatzen ez badu hilobia erabiltzeko eskubidearen titulartasuna testamentuko oinordekoei transmitituko zaie. Testamenturik ez badu egin, lege zibilean ezarrita dagoen oinordetza ordenaz transmitituko da.*

- *Esleipenduna izango den pertsonaren nortasun agiriaren fotokopia.*

- *Emakida administratiboa indarrean egotea, hau da, 99 urte ez izatea. Interesatuak hilerri zaharreko hilobia erabiltzeko eskubidearen kontzesioaren titulua aurkeztu beharko dute.*

- *Eskatzaileak erantzukizunpeko berriazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berriaz adieraziko du kitaturik dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenen ezarritakoak, edo hala egiten ez badu, egiaztagiria aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko. Edozein kasutan esleipena gauzatu aurretik egiaztagiria aurkeztu behar dira betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.*

- *Udalarekin zorrik ez izatea Udalak berak egiaztatuko du ofizioz.*

Udal Zerbitzu eta Mantenua Saileko Buruak ere bere txostena eman du Usurbilgo Hilerriko okupazioari buruzkoa. 2001-2013 urteen artean eman diren ehorzketa eta berrehorzketen kopurua aztertu ondoren eta 2014an dagoen panteoien okupazio maila ikusita, 8 panteoi berri horiek pribatizatzeke leku arazorik ez da aurreikusten.

Legeri aplikagarria

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea (oinarrizko izaera duten artikulua)
- Herri Administrazioen Ondarearen Erregelamendua arautzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua (oinarrizko izaera duten artikulua)
- Uztailaren 20ko 2263/74 Erregelamendua, "Policia Sanitaria Mortuoria" delakoa
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea
- Usurbilgo udal hilerri berriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia



Usurbilgo Udala



Bestetik Udal Idazkariak espedientea aztertu du eta dagozkion zuzenketak egin ondoren, espedienteari amaiera emateko alkateak duen proposamena organo eskudunak aurrera eramateko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 88. artikulua baitan, Udal Batza Plenoak hartu behar lituzken akordioak bere txostenean jaso ditu, erabaki proposamena eginez.

Esan bezala kontuan hartu du indarrean dagoen legeriak prozedura administratiboa amaitzeko moduen artean ondorengo xedatzen duela, horrela dio hitzez hitz azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 88. artikuluan:

Artículo 88 Terminación convencional

1. Las Administraciones Públicas podrán celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al Ordenamiento Jurídico ni versen sobre materias no susceptibles de transacción y tengan por objeto satisfacer el interés público que tienen encomendado, con el alcance, efectos y régimen jurídico específico que en cada caso prevea la disposición que lo regule, pudiendo tales actos tener la consideración de finalizadores de los procedimientos administrativos o insertarse en los mismos con carácter previo, vinculante o no, a la resolución que les ponga fin.

2. Los citados instrumentos deberán establecer como contenido mínimo la identificación de las partes intervinientes, el ámbito personal, funcional y territorial, y el plazo de vigencia, debiendo publicarse o no según su naturaleza y las personas a las que estuvieran destinados.

3. (...)

4. Los acuerdos que se suscriban no supondrán alteración de las competencias atribuidas a los órganos administrativos ni de las responsabilidades que correspondan a las autoridades y funcionarios relativas al funcionamiento de los servicios públicos.

Zerbitzu Batzordeak 2014ko urriaren 9ko bilkuran, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luismari Ormaetxea eta Josune Urkola zinegotzien aldeko botoarekin proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

ERABAKIAK

LEHENENGOA: Udalbatza Plenoak 2002ko uztailaren 26an hartutako akordioei dagokienean jendaurreko epean tarteratutako alegazioak ondorengo moduan erantzutea.

Alegazio zenb	Alegatzailea	Panteoi zenb	Sailkapena	Erantzuna	Zioa
1	Ondorengo oinordekoak: - J. Peñagaricano	57	emakida	partzialki onartzea	2. akordiora bideratua



Usurbilgo Udala



	- M. Echaveguren - J. Korta - J. Zubitur - F. Jauregi Arana	54 10 60 65			
2	Urdanpilleta Gorrotxategi	12	- hasierako erabakia: ez emakida - jendeaurre ondorengo erabakia: emakida	onartzea	emakida frogatua
3	M.L. Aizpurua Aierdi (J.Ramon Aizpurua Iribarri emandako baimena)	3	ez emakida	ez onartzea	emakida ez frogatua
4	J.A. Artze Agirre (Artze-Olano familia)	41	ez emakida	ez onartzea	emakida ez frogatua
5	J.Yeregui Aramendia	16	ez emakida	onartzea	titularra M ^a Concepcion Yeregui Larrechea
6	M.Urreta Echevesteren seme-alabak	23	ez emakida	partzialki onartzea	oinordekotza frogatua
7	J. Matxain Alzaga	1	ez emakida	onartzea	J.Matxain Yeregi senitartekoari dagokio
8	A.Urdangarin Oliden	62	emakida	partzialki onartzea	2. akordiora bideratua
9	D.Zubeldia Iribar	53	emakida	partzialki onartzea	2. akordiora bideratua
10	I.Gordoa (Zatarain panteoia)	44	ez emakida	onartzea	helbidea gehitu du
11	M.Iturralde Sorrondegi	11	emakida	partzialki onartzea	2. akordiora bideratua

Titulartasuna edo emakida administratiboak erreskatatu ahal izateko balorazio ekonomikoaren inguruko alegazioak ez direnak, hau da, beste edozein motatako eskaera edo proposamenen inguruan, espediente honetatik kanpo geratzen direnez, udalak egokia ikusten badu dagokion unean bere erantzuna emango du.

BIGARRENA: Jarraian aipatzen diren hilerri zaharreko panteoien titularrei beren emakida administratiboa erreskatatzeko jardunbidearen amaiera jakinaraztea bere egunean Udaleko zerbitzu teknikoek indemnizazioa finkatzeko egindako azterketan oinarrituta eta panteoien azaleraren araberrako sailkapena eginez, jatorrizko emakida administratiboa era honetara ordezkatzuz indemnizazio gisa:

- Hilerri zaharreko 4 metro arteko azalerako panteoien ordezkari, hilerri berrian 2 apal ematea



Usurbilgo Udala



- Hilerri zaharreko 7 metro arteko azalerako panteoien ordeztu, hilerri berrian 3 apal ematea

- Hilerri zaharreko 7 metroko azalera gainditzen duten panteoien ordeztu, hilerri berrian 4 apal ematea

Kasu guztietan, hilerri berrian gauzatuko diren administrazio emakiden epea 50 urterako izango da eta 47 nitxo edo apalak (8 panteoi) Sahatsa kaleko bi aldeetako panteoietan kokatuko lirateke eta zozketa egin ondoren banatuko lirateke.

61	JOSEFA AIZPURUA IRAZU	3 NITXO
78	JULIAN URKIOLA URROZ	3 NITXO
10	JOSE KORTA ETXEBERRIA	2 NITXO
52	LAZARO MAIZ ILLARRAMENDI	2 NITXO
51	IGNACIO OLAZABAL 2NITXO	
55	FELIX OLASAGASTI MUGIKA	3 NITXO
56	JOSE JUAN OLASAGASTI KAMINO	3 NITXO
57	JOSEFA PEÑAGARIKANO IZETA	4 NITXO
54	MANUEL ETXABEGUREN ZUBELDIA	2 NITXO

53	RAIMUNDO ILLARRAMENDI KAMINO	2 NITXO
47	JOSE M ^a TORREGARAI FURUNDARENA	2 NITXO
58	JUAN MANUEL AIZPURUA ARANA	2 NITXO
59	BLAS AMAS GOÑI	3 NITXO
60	JUAN ZUBITUR SALSAMENDI	3 NITXO
62	ANTONIO URDANGARIN "ITZAO"	2 NITXO

63	MANUEL URRUZMENDI OSTOLAZA	3 NITXO
65	FRANCISCA JAUREGI ARANA	2 NITXO
11	MARCELINO ITURRALDE SORRONDEGI	2 NITXO
12	URDANPILLETA GORROTXATEGI	2 NITXO

HIRUGARRENA: Alkatea ahalmentzea akordio honen baitan hilerri zaharreko panteoien gaineko emakida administratiboak erreskatatzeko burutu beharreko administrazio egintza guztiak aurrera eramateko eta dagokion hitzarmenak formalizatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea eta dagokion iragarkia GAOn argitaratzea."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala



4.- USURBILGO HERRI BIDEEN INBENTARIOA EGUNERATZEA, 382/2012 PROZEDURA ARRUNTA AUZIAN ETA 755/2013 APELAZIO HELEGITEAN EMANDAKO SENTENTZIAK EXEKUTATZEKO.

Alkateak gai honi buruzko azalpenak eman ditu.

Udalbatza Plenoak 2012an Usurbilgo Herri Bideen inbentarioa behin betikoz onartu zuela, erabaki horren aurkako hainbat administrazio helegite aurkeztu zirela eta ekainean Udalbatza Plenoan ebatzi egin zuela azaldu du. Ebazpen horren aurka hiru helegite aurkeztu zirela esan du. Horietako bat erabat itxita dagoela eta Udalaren aldekoa izan dela aipatu du; bigarrena lehen instantzian itxita dagoela eta hau ere Udalaren aldekoa izan dela, baina interesatuek gorako helegitea aurkeztu dutela eta erabat itxi gabe dagoela esan du; azkenik, hirugarren helegiteari dagokionez, gaur hemen aurkezten dena dela esan du.

Jarraian, helegiteari buruzko zehaztasunak eman ditu. Aginako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidearen publikotasunaren aurkako helegitea aurkeztu zutela eta honen sententzia dela dio orain exekutatu beharko litzatekeena. Batzordean aipatu zen moduan sententzia nahiko berezia dela esan du, zeren ondorioztatzen baitu Udalak egin duen interpretazioa, hau da, bidea publikoa dela, zibileko epaitegiak esan beharko duela bide hori publikoa den edo ez. Besteak beste, sententzian esaten dela dio Udalak ez duela funtsezko agiririk inbentarioan bide hori publiko bezala jaso ahal izateko, baina halaber sententzian bidea pribatua dela ondorioztatzea ere, demandatzaileak eskatu duen moduan, ez dagokiola kontentzioso-administratiboko epaitegiari baizik eta auzitegi zibilak erabaki beharrekoa izango litzatekeela.

Beraz, sententzia honek 8.8 adarrari eragiten diola eta exekutatu ahal izateko adar hau hiru zatitan zatitu dela esan du. Sententzia honek erdian dagoen zatiari eragiten diola zehaztu du. Hori horrela, 8.8.a eta 8.8.c bide publiko bezala mantentzen dira eta, momentuz, 8.8.b izaera eztabaidagarriko bide bezala izendatu dela esan du, ezin baita esan publikoa edo pribatua den. Zati hau bai fitxan eta baita planoetan ere kolore berdea marrekin identifikatuko dela gaineratu du.

Arratsaldeko 18:20ak direnean, Josu Portu zinegotzia bertaratu da.

Alkateak jarraitu du esanez momentuz irtenbide honekin sententzia exekutatzen dela eta gerora ikusiko dela egoera honek zein arazo sortzen dituen.

Gaineratu du 8.8.a eta 8.8.c zatien mantenua udalak egiten badu, tarteko zati horrena ere egingo duela logika baten baitan.

Luisuari Ormaetxeak adierazi du batzordean egin zuten moduan, orain ere aurka bozkatuko dutela, zeren bai batzordean eta baita plenoan eman dituen azalpenekin



Usurbilgo Udala



iruditzen zaie herritarrek babes juridiko gabe geratzen direla. Herritarrei konponbideak eskaintzeko daudela esan du eta ez indefinizioak paperean ziurtatzeko.

Alkateak erantzun dio eskuartean dutena sententzia bat dela eta hori exekutatu egin behar dutela, beste biderik ez dutela, eta ez diotela inori babes juridikorik kentzen azpimarratu du.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.15/2014-0395

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2012ko otsailaren 28an egindako bileran, Jose Tellabide eta Asier Agirresarobe jaunek idatzitako *Usurbilgo Herri bideen Inbentarioa (2011ko uztaila)* BEHIN BETIKOZ onartzea erabaki zuen. Erabakia Gipuzkoa Aldizkari Ofizialeko 50. zenbakian argitaratu zen 2012ko martxoaren 13an. Udalbatza Plenoak hartutako akordioaren aurka hainbat administrazio helegite tartekatu ziren eta hauek Udalbatza Plenoak 2012ko ekainaren 26an egindako bilkuran ebatzi zituen.

Aurreko ebazpenaren aurka ondorengo auzi helegiteak tartekatu ziren:

- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0000564 – Prozedura Arrunta 188/2012 erreferentziarekin Francisco Azconobieta Etxeberria jaunak tartekatua 8., 9., 10., eta 11. bideen publikotasunaren aurka. Aipatu prozeduran 213/2013 sententzia gauzatu da eta demandatzailearen helegitea gaitzetsi da.
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0000687 – Prozedura Arrunta 226/2012 erreferentziarekin Natalia Martinez-Arroyo Muñoz andreak tartekatua. Aipatu prozeduran 89/2014 sententzia gauzatu da demandatzailearen helegitea gaitzetsiz. Aurrekoaren aurka interesatuak apelazio helegitea tartekatu du Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salaren aurrean (oraindik ez da ebatzi).
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentziarekin Victoria Anastasia Salsamendi Azurmendi andreak tartekatua Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidearen publikotasunaren aurka. Aipatu prozeduran 215/2013 sententzia gauzatu da eta udalak tartekatutako 755/2013 apelazio helegiteari dagokionean, Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak 269/2014 sententzia eman du. **Sententzia hauen exekuzioa dagokio orain udalari.**



Usurbilgo Udala



Bestalde, Usurbilgo herri bideen inbentarioa indarrean dagoenetik, udalerrian sustatutako garapenek inbentarioan aldaketak eragiteaz gain, zenbait hutsegite antzeman zirenez inbentarioan bertan, Udalbatza Plenoak 2013ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran hauen inguruko ebazpena onartu zuen.

Arestian aipatu bezala **Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bideari dagokionean 215/2013 eta 269/2014 sententzien exekuzioa dagokio orain udalari.**

Aipatu apelazio helegitearen ondorengo sententziatik ondorioztatzen da, batetik, demandatzaileak interesatu izaera ez bazuen ere, berraztertze helegitea tartekatze epeari dagokionean kasu honetan ezin zela aintzat hartu ediktu bidezko jakinarazpena udalaren jarduerak udal ebazpenaren jakinarazpen pertsonalaren konfiantza sortu zuelako demandatzailearengan; eta bestetik, udalak egin duen interpretazioa Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bideari dagokionean, publikoa dela esanez, zibileko epaitegiak esan beharko lukeela. Bertan adierazten da udalak ez zuela funtsezko agiririk inbentarioan bide hau publiko bezala jasotzeko.

Baina edozein kasutan argi adierazten du instantziako 215/2013 sententziak bidea pribatua dela ondorioztatzea, demandatzaileak eskatu bezala, ez dagokiola Kontentzioso-Administratiboko epaitegiari, baizik eta Auzitegi Zibilak erabaki beharrekoa izango litzatekeela.

Sententziek eragindako aldaketak ondokoak dira:

08.8 adarra: Erribera kalea

Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzeko, indarrean dagoen herri bideen inbentarioko **08.8 adarra: Erribera kalea hirutan** banatuko da: **08.8a adarra** bere ezaugarriekin; **08.8b adarra**, sententziek erasandako zatia; eta **08.8c adarra** bere ezaugarriekin.

08.8a adarrak orain arte 08.8 adarrak indarrean dagoen herri bideen inbentarioan izan duen izaera bera izango du: herri-bidea.

08.8b adarrak aldiz, izaera berezia izango du: **izaera eztabaidagarriko bidea**.

08.8c adarrak orain arte 08.8 adarrak indarrean dagoen herri bideen inbentarioan izan duen izaera bera izango du: herri-bidea.

Gauzak horrela, herri bideen inbentarioa ondoko eran eguneratzea proposatzen da:



Usurbilgo Udala



Fitxetan

- **08.8 adarra: Erribera kalea** hirutan bereizten da:
 - 08.8a adarra: Erriberako kalea (a) ---> 148 m.
 - 08.8b adarra: Erriberako kalea (b) ---> 20 m.
 - 08.8c adarra: Erriberako kalea (c) ---> 22 m.

- 08. Aginaga-Oriko Benta bidea herri-bidearen fitxako oharra ondoko testuarekin osatuko da:

“08.8 adarraren ordezk 08.8a, 08.8b eta 08.8c adarrak bereizi dira Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzeko. 08.8a adarra eta 08.8c adarra herri bideak dira eta 08.8b adarraren izaera eztabaidagarria da bere kasuan Auzitegi Zibilak esan dezakeenaren baitan.”

Planoan

- Planoaren legendan ondoko aldaketa burutuko da: **Izaera eztabaidagarriko bideen** grafia jasoko da: berdea marratxoekin.

- Planoko herri-bideen zerrenda osatuko da, 08.8 adarra ordezk, 08.8a eta 08.8c adarrak (herri bide izaeraz), eta 08.8b adarra (izaera eztabaidagarria) jasoz.

- **08.8 adarra desagartuko da. Honen ordezk**, orain arteko grafia berakin 08.8a eta 08.8c adarrak zehaztuko dira, eta 08.8b adarra izaera eztabaidagarriko bide bezala.



LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Nagore Sarasola Otermin andereak bere aldetik, gai aztertu ostean, ondoko txostena eman du:



Usurbilgo Udala



LEGE-TXOSTENA

Gaia: Udalerriko herri-bideen inbentarioa epaitegiko sententzia betetzea

Esp. Zenbakia: HZ.15/2014-0395

1.- SARRERA

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 54.1b) atalean xedatzen denaren arabera, idazkariaren txostena beharrezkoa da, beste kasu batzuen artean, gehiengo osoz onartu beharreko gaietan. Berdina xedatzen dute azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 173.1b) eta Gaiakuntza Estataleko Toki Entitateetako Funtzionarioen Eraentza Juridikoa arautzen duen irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuko 3b) atalek.

Araudiaren agindua jarraituz eta gaia landu ostean, izenpetzen duen idazkariak txosten juridiko hau luzatzen du espediente osatzeko jatorrizko dokumentuaren izapidetzean orain arte burutu duen bezala.

2.- HERRI-BIDEEN INBENTARIOA

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2012ko otsailaren 28an egindako bileran, Jose Tellabide eta Asier Agirresarobe jaunek idatzitako *Usurbilgo Herri bideen Inbentarioa (2011ko uztaila)* BEHIN BETIKOZ onartzea erabaki zuen. Erabakia Gipuzkoa Aldizkari Ofizialeko 50. zenbakian argitaratu zen 2012ko martxoaren 13an. Udalbatza Plenoak hartutako akordioaren aurka hainbat administrazio helegite tartekatu ziren eta hauek Udalbatza Plenoak 2012ko ekainaren 26an egindako bilkuran ebatzi zituen.

Aurreko ebazpenaren aurka ondorengo auzi helegiteak tartekatu ziren:

- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0000564 – Prozedura Arrunta 188/2012 erreferentziarekin Francisco Azconobieta Etxeberria jaunak tartekatua 8., 9., 10., eta 11. bideen publikotasunaren aurka. Aipatu prozeduran 213/2013 sententzia gauzatu da eta demandatzailearen helegitea gaitzetsi da.
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0000687 – Prozedura Arrunta 226/2012 erreferentziarekin Natalia Martinez-Arroyo Muñoz andreak tartekatua. Aipatu prozeduran 89/2014 sententzia gauzatu da demandatzailearen helegitea gaitzetsiz. Aurrekoaren aurka interesatuak apelazio helegitea tartekatu du Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salaren aurrean (oraindik ez da ebatzi).
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegian, N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentziarekin Victoria Anastasia Salsamendi Azurmendi andreak tartekatua Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidearen publikotasunaren aurka. Aipatu prozeduran



Usurbilgo Udala



215/2013 sententzia gauzatu da eta udalak tartekatutako 755/2013 apelazio helegiteari dagokionean, Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak 269/2014 sententzia eman du. **Sententzia hauen exekuzioa dagokio orain udalari.**

Bestalde, Usurbilgo herri bideen inbentarioa indarrean dagoenetik, udalerrian sustatutako garapenek inbentarioan aldaketak eragiteaz gain, zenbait hutsegite antzeman zirenez inbentarioan bertan, Udalbatza Plenoak 2013ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran hauen inguruko ebazpena onartu zuen.

Arestian aipatu bezala **Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bideari dagokionean 215/2013 eta 269/2014 sententzien exekuzioa dagokio orain udalari.**

Aipatu apelazio helegitearen ondorengo sententziatetik ondorioztatzen da, batetik, **demandatzaileak interesatu izaera ez bazuen ere, berraztertze helegitea tartekatzeko epeari dagokionean kasu honetan ezin zela aintzat hartu ediktu bidezko jakinarazpena udalaren jarduerak udal ebazpenaren jakinarazpen pertsonalaren konfiantza sortu zuelako demandatzailearengan;** eta bestetik, **udalak egin duen interpretazioa Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bideari dagokionean, publikoa dela esanez, zibileko epaitegiak esan beharko lukeela.** Bertan adierazten da **udalak ez zuela funtsezko agiririk inbentarioan bide hau publiko bezala jasotzeko.** Apelazio helegiteari dagokion 269/2014 sententziak honela dio hitzez hitz:

“ (...) La sentencia de instancia ha estimado los dos motivos en que se fundó el recurso contencioso [izan ere demandatzailearen 3. eskaera behe-rago azpimarratuko den moduan, hau da, bidea pribatua dela adieraztea, ez da aintzat hartua izan instantziako sententzian] la presentación del recurso de reposición dentro del plazo de un mes, contado desde la notificación personal del acuerdo objeto de ese recurso a la recurrente, y el exceso del Ayuntamiento en el ejercicio de la potestad de recuperación de los bienes de dominio público, ya que no ha acreditado el destino o titularidad públicos del camino situado entre las casas Etxeberri y Serragain de Aginaga, dentro de los límites de aquella potestad de autotutela.

(...) En el primer motivo del recurso de apelación se sostiene en contradicción con el fundamento tercero de la sentencia de instancia que no era necesaria la notificación personal del acuerdo que resolvió el expediente de aprobación del Inventario municipal de caminos a la pluralidad indeterminada de afectados por ese acuerdo, entre ellos la recurrente, debiendo darse por válida a los mismos efectos la publicación de fecha 13-03-2012 en el B.O. de Gipuzkoa, y como aquella no interpuso el recurso de reposición hasta el 19-04-2012 la declaración de extemporaneidad de ese recurso es conforme al ordenamiento. (...) Así, la recurrente no tenía la condición de interesada ex artículo 31-1 b) de la Ley 30/1992 y tampoco su comparecencia en el trámite de información pública o participación en la Comisión Informativa de urbanismo otorga esa condición con arreglo al apartado c) del mismo precepto, sino que es necesaria la personación en el procedimiento. (...) Ahora bien, aun no teniendo la recurrente la condición de interesada ex artículo 31-1 de la Ley 30/1992 cuya aplicación al caso en relación con el artículo 58-1 de esa norma ha sido obviada tanto por la sentencia apelada como por ambas partes, no puede computarse el plazo de interposición del recurso de reposición desde la fecha de comunicación edictal de la resolución objeto de ese recurso porque la actuación del propio Ayuntamiento y no solo de la recurrente generó en ésta la legítima confianza en la notificación personal de aquel acto. (...)

(...) En el segundo motivo del recurso de apelación se discute la valoración que ha hecho la sentencia de instancia sobre los fundamentos y límites de la potestad de autotutela de bienes que comporta la aprobación de su inventario. No es que la



Usurbilgo Udala



Corporación local no esté habilitada para declarar la titularidad de los bienes a resultas del expediente de investigación; no otra es la finalidad de ese expediente (artículo 45 del Real Decreto 1372/1986). El hecho es que con ocasión de la investigación practicada por el Ayuntamiento de Usurbil se han suscitado cuestiones de naturaleza civil, por su complejidad y alcance y cuya resolución corresponde a la jurisdicción ordinaria (artículo 55-1 del mismo Real Decreto). Y es que las pruebas practicadas, según valoración del órgano de primera instancia que no puede considerarse desvirtuada por esta Sala, no han acreditado el destino del camino al uso o tránsito público (...), o la existencia de un título revelador de la demanialidad discutida de dicho bien. De las escrituras invocadas por el apelante (parcelas catastrales EA34116 y EA34016) no resulta de forma clara o no razonablemente controvertible la titularidad demanial de dicho bien. Son tan serias las insuficiencias probatorias de la titularidad en cuestión advertidas por la sentencia apelada como las objeciones opuestas por la apelada y que se refieren principalmente a la identificación sobre el terreno del camino descrito como público en las escrituras citadas por el apelante. Hay, en definitiva, una controversia razonable sobre la titularidad pública o privada del camino que no puede resolverse a favor de su inclusión en el Inventario municipal sin reconocer al Ayuntamiento una potestad de autotutela declarativa que excede de la reconocida por la legislación de bienes de las entidades locales. (...)

Baina edozein kasutan argi adierazten du instantziako 215/2013 sententziak **bidea pribatua dela ondorioztatzea, demandatzaileak eskatu bezala, ez dagokiola Kontentzioso-Administratiboko epaitegiari, baizik eta Auzitegi Zibilak erabaki beharrekoa izango litzatekeela**. Hitzez hitz aipatu sententziak barneratzen duen ondorioa (apelazio helegitearen izapidearen barnean eta horren ondoriozko 269/2014 sententziak ez dio ezer gai honen inguruan):

*“ (...) La cuestión fundamental en el recurso contencioso-administrativo deducido por la actora es sostener la naturaleza jurídico-privada del camino existente entre las Casas de Serragain y Etxeberri de Aginaga por la corporación demandada (...). (...) del suplico del escrito de demanda de la recurrente, interesando que se declare el carácter privado del camino existente entre las casas Serragain y Etxeberri de Aginaga, es inadmisibile de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68.1 a), 69 a) de la LJCA y concordantes artículo 17 y ss 50, 55, 56, 60 y 61 del RBEEL de 1986. Al articularse **como pretensión del suplico de su demanda, la causa se transforma en causa de desestimación de la pretensión tercera del suplico de su escrito de demanda.** (...) FALLO: (...) 3º) Que debo desestimar y desestimo la tercera de las pretensiones por la que se interesaba que se declarara privado el camino existente entre las casas Serragain y Etxeberri de Aginaga. (...)*”

Beraz ondorio nagusi moduan ondorengoa hartu behar da aintzat bi sententziek dioten bezala, hitzez hitz: “no resulta de forma clara o no razonablemente controvertible la titularidad demanial de dicho bien”, “hay, en definitiva, una controversia razonable sobre la titularidad pública o privada del camino que no puede resolverse a favor de su inclusión en el Inventario municipal sin reconocer al Ayuntamiento una potestad de autotutela declarativa que excede de la reconocida por la legislación de bienes de las entidades locales”, “Que debo desestimar y desestimo la tercera de las pretensiones por la que se interesaba que se declarara privado el camino existente entre las casas Serragain y Etxeberri de Aginaga”.

Aurreko guztiaren **exekuzioa** dagokio orain udalari eta beraz, udal zerbitzu teknikoek “Usurbilgo Herri-Bideen Azterketa” izeneko dokumentuan dagozkion moldaketak burutu dituzte aipatu sententzien exekuzioa aurrera eramateko.



Usurbilgo Udala



08. Aginaga – Orioko Benta Bidea, 08.8 adarra hiru zatitan banatu da: horrela, **08.8a adarra** bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak), **08.8b adarra** (une honetan eskuartean duguna) bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak) eta **08.8c adarra** bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak).

Aurrekoa dagokion fitxa teknikoan jaso da eta baita planoan ere **08.8a adarra eta 08.8c adarra** herri bideei dagokien kolore berdez identifikatuz (indarrean dagoen dokumentuan orain arte identifikatu den moduan) eta **08.8b adarrari** dagokionean bide eztabaidagarriei (*controvertible, controversia* sententziaren hitzetan) dagokien identifikazio modua sortu da, berdea marraztekin, hain zuzen ere.

Bestalde, dagokion fitxan, “oharrak” atalean ondorengo aipamena gehitu da: “08.8 adarraren ordean 08.8a, 08.8b eta 08.8c adarrak bereizi dira Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzeko. 08.8a adarra eta 08.8c adarra herri bideak dira eta 08.8b adarraren izaera eztabaidagarria da bere kasuan Auzitegi Zibilak esan dezakeenaren baitan.”

3.- LEGE-ARAU BIDE APLIKAGARRIA

Ondasunen inbentarioak, obligazioari zein osaketa eta edukiari dagokienean, oinarria dauka ondorengo araudian:

- Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean (79.2. eta 3. atalak eta 80. artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onartutako Erregimen Lokaleko Materien Xedapenei buruzko Testu Bateratuan (74.1. eta 86. artikulua)
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuz onartu zen Entitate Lokalen Ondasunen Arautegian (3.1, 17.1. atalak alde batetik; 18. eta hurrengo artikuluek 36. artikulura arte Udalen Ondasunen Erroldaren araubide juridikoa arautzen dute, 34. artikulua Udaltza Plenoaren eskuduntza onartzen duelarik Ondasunen Errolda onartu, aldatu edota zuzentzeko)
- Kode Zibilaren 338. eta hurrengo artikuluetan ere arautzen dira ondasunak.
- Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileak, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauen testu bateratua onartzen duenak, Gipuzkoako errepide eta bideen erregimen juridikoa xedatzen du, errepide eta bideen plangintza, finantzaera, proiektugintza, eraiketa, aldatzea, artapena, erabilera, babesa eta ustiaketa oso-oso erregulatzen duelarik (2.2. atalean “bideen” definizioa jasotzen da eta 9.1. atalak adierazten du Gipuzkoako udalek beren



Usurbilgo Udala



jabetzako bideen herri jabaria osatzen duten errepideen, bideen eta gainerako ondasun higiezin inbentarioa beti egina izango dutela eta inbentarioan agertu beharko duela errepide edo bide bakoitzaren deskribapen ahalik eta zehatzena, luzera, hasierako eta bukaerako mugak eta ezaugarri orokorrak azalduko dituen, ahal dela aipatutako ondasunen mugaketa agiriak ere barne direla)

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea (oinarrizko izaera duten artikulua) eta Herri Administrazioen Ondarearen Erregelamendua arautzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua (oinarrizko izaera duten artikulua). 33/2003 Legearen 36.1. atalaren baitan eta zentzu berdinean Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 36. artikulua arabera, Toki Erakundeek dituzten ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetzako Erregistroan inskribatu beharko dituzte, Lege Hipotekarioak aurreikusitakoa betez.
- Uztailaren 13ko 29/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeko 103. eta hurrengo artikulua sententzien betearazpenaren inguruan

4.- ONDORIOAK

Arestian adierazi den moduan epaitegiko sententzien betearazpena dagokio orain udalari. Hori horrela, 08. Aginaga – Orioko Benta Bidean, 08.8 adarraren orde, 08.8a, 08.8b eta 08.8c adarrak bereizi dira Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzeko. 08.8a adarra eta 08.8c adarra herri bideak dira eta 08.8b adarraren izaera eztabaidagarria da bere kasuan Auzitegi Zibilak esan dezakeenaren baitan.


Sententzien exekuzioa aurrera eramateko teknikari honen ustez ez da beharrezkoa dokumentuaren onarpen prozesuan jarraitutako izapidetzea jarraitzea, hau da, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedaturikoa.

Aurreko guztia horrela izanik, jarraitu beharreko prozedura eta organo eskudunari dagokionean, aintzat hartu behar da aipatu sententzien exekuzioa onartzeko organo eskuduna Udalbatza Osoa dela, eta gehiengo osoz onartu behar dela erabakia herri jabariko ondasunen izaera juridikoa aldatzen bada, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 34. eta 7/1985 Legearen 47.2.n) atalaren baitan.

Epaimahai Goreneko 1974ko urtarrilaren 31ko sententziari jarraituz, bidearen izaera juridikoa aldatzen den kasuetan jakinarazpen pertsonalak egin behar zaizkie lurjabeei, jabe mugakideei eta edozein eskubideren titularrei. Bestalde,



Usurbilgo Udala



sententzien exekuzioaren ondorioz dokumentuan gauzatutako aldaketen inguruko akordioaren iragarkia GAOn argitaratu beharko da.

Amaitzeko, lege-araubide aplikagarriaren atalean zehaztu den moduan, Toki Erakundeek dituzten ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetzako Erregistroan inskribatu behar dira, Lege Hipotekarioak aurreikusitakoa betez.

5.- ERABAKI PROPOSAMENA

Lehenengoa: Usurbilgo Herri bideen Inbentarioa izeneko dokumentuan 08. Aginaga – Orioko Benta Bidean, 08.8 adarrari dagokionean, zehazki Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzea. Aipatu betearazpena horrela gauzatzea:

08. Aginaga – Orioko Benta Bidea, 08.8 adarra hiru zatitan banatzea: horrela, **08.8a adarra** bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak), **08.8b adarra** (une honetan eskuartean duguna) bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak) eta **08.8c adarra** bere ezaugarriekin (zabalera, zorua, egoera, mugakideak).

Aurrekoa dagokion fitxa teknikoan jasotzea eta baita planoan ere 08.8a adarra eta 08.8c adarra herri bideei dagokien kolore berdez identifikatuz (indarrean dagoen dokumentuan orain arte identifikatu den moduan) eta **08.8b adarrari** dagokionean bide eztabaidagarriei (*controvertible, controversia* sententziaren hitzetan) dagokien identifikazio modua sortzea, berdea marraztekin.

Bestalde, dagokion fitxan, "oharrak" atalean ondorengo aipamena gehitzea: "08.8 adarraren ordeiz 08.8a, 08.8b eta 08.8c adarrak bereizi dira Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatzeko. 08.8a adarra eta 08.8c adarra herri bideak dira eta 08.8b adarraren izaera eztabaidagarria da bere kasuan Auzitegi Zibilak esan dezakeenaren baitan."

Bigarrena: Erabaki honen berri interesatuei eta epaitegiari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hauxe da udal idazkariaren txostenaren edukia epaitegiko sententziaren betearazpenari dagokionean.

Usurbilen, 2014ko irailaren 16an
Udal Idazkariak
Nagore Sarasola Otermin



Usurbilgo Udala



Hirigintza Batzordeak, 2014ko urriaren 23an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdampilleta eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin, Luis Mari Ormaetxearen aurkako botoekin, eta Eustakio Arrojeria eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakiak hartu ditu gehiengo osoz:

ERABAKIAK

LEHENDABIZI: Usurbilgo Herri bideen inbentarioa eguneratzea, Aginagako Etxeberri eta Serragain etxeen arteko bidea dela-eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zk.ko Epaitegiak N.I.G. P.V. 20.05.3-12/0001129 – Prozedura Arrunta 382/2012 erreferentzia duen auzian emandako 215/2013 sententzia eta 755/2013 apelazio helegitea dela-eta Euskal Herriko Epaimahai Nagusiko Administrazioarekiko Auzialdiko Salak emandako 269/2014 sententzia exekutatu, udal zerbitzuek prestatutako dokumentazioaren arabera (2014ko iraila):

- indarrean dagoen herri bideen inbentarioko **08.8 adarra: Erribera kalea** hirutan banatuko da: **08.8a adarra** bere ezaugarriekin; **08.8b adarra**, sententziek erasandako zatia; eta **08.8c adarra** bere ezaugarriekin.
- **08.8a Erriberako kalea (a) eta 08.8c Erriberako kalea (c) adarrak:** . Orain arte 08.8 adarrak indarrean dagoen herri bideen inbentarioan izan duen izaera bera izango dute: herri-bidea (urrenez urren, 148 m eta 22 m)
- **08.8b adarrak: Erriberako kalea (b).** Aldiz, izaera berezia izango du: **izaera eztabaidagarriko bidea** (20 m).

BIGARRENA: Usurbilgo herri bideen inbentarioaren eguneratzearen onespenerari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eragindakoei eta epaitegiari jakinaraztea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.



Usurbilgo Udala



5.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

5.1.- EAJ-PNV ETA EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BEHIN BEHINGOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIA.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, EAJ-PNVk eta EHBilduk aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio kontraktotasuneko errekurtsioa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.- Usurbilgo Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Usurbilgo Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

2.- Usurbilgo Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsioarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.

3.- Usurbilgo Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.



Usurbilgo Udala



4.- Usurbilgo Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitatari bidaliko dio.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoa: Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.2.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO ESKAERA: LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEN ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Ricardo Crespok mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu du, zeren bere ustez instituzio bat direnez, bigarren puntuan esaten dena egitea legea ez betetzea izango litzateke eta hori arduragabekeria dela iruditzen zaio.

Alkateak erantzun dio puntuz puntu bozkatuko dutela.

Batzarkideek, EHBilduk aurkeztutako proposamena aztertu dute eta honako eskaera egitea adostu dute:

“Uda honetan PPK kultura- eta hezkuntza-munduari eraso dio beste behin, eta beraz beste urrats bat aurrera egin du zerbitzu publikoen aurka abian jarri duen gurutzadan.

Joan den abuztuaren 1ean BOEn 624/2014 Errege Dekretua argitaratu zen, *uztailaren 18koa, establezimendu publiko jakin batzuetan beren lanak maileguz uzteagatik egileei ordaintzeko eskubidea garatzen duena*. Gobernuaren aldebakarreko Dekretu horrek ezin gehiago gutxietsi eta baztertu ditu liburutegietako profesionalen iritzia eta irizpidea, eta ospe handiko zenbait idazle ere haren aurka egiten hasi dira.

Onartutako dekretuaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile- edo editoreelkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiek ordaindu beharko dute, beraz,



Usurbilgo Udala



legeen arabera eskaini behar dituzten zerbitzuak eskaintzeagatik, eta horrela liburutegiaren funtsa kolokan jarriko da, baita zerbitzu publiko horren biziraupena bera ere.

Egile-eskubideen elkarteek beren gain hartuko dute kanonaren kudeaketa osoa, ordaintzeko betebeharra izapidetuz urtean behin kanona egileei helarazteko. Hau da, diru publikoarekin negozio pribatua sustatuko da.

ESKAERA:

1. Uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.

2. Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.”

Bozketa puntuz puntu egin da:

1go puntua:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, 1go puntua aho batez onartu da.

2. puntua:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Abstentzioa: Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, 2. puntua gehiengoz onartu da.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.